

08 martxoa – 8.alea

informazio

Atzo martxoaren 13an izan genuen mahai negoziatzailean puntu hauek adostu genituen:

Lan Hitzarmenaren iraupena: 2009ko abenduaren 31ra arte, salbu antolakuntza eta programaketa 2010eko abuztuaren 31 arte.

Koordinaziorako denbora: 8 gela baino gehiago: Liberazio osoa.
6 gelatik gora: liberazio erdia.
4 eta 5 gela: 90' eguneko.
2 eta 3 gela: 60' eguneko.
Gela bakarrekoak: 45' eguneko.

Arreta zuzena haurrekin: 08/09 ikasturtean: 6 ordu eguneko, kontratazio berria eskatzen ez duten haurreskoletan. 15 minutu metatuko dira haurreskolako koordinazio bilerak egiteko hilabetan behin edo bitan.
09/10 ikasturtean: neurri hau haurreskoletako %20an ezarriko da. Ikasturte honetatik aurrera urtero aztertuko da nola ezarri haurreskola guztietan.

Lanaldia: 2008/2009: 211 lan egun.
2009/2010: 210 lan egun.
4 egun ume gabekoak: 3 irailean eta 1 uztailean.
Ikasturte bietan 2 txandakako egunak urtean zehar libre hartu ahal izateko.

Soldata igoera :2007ko igoera: % 4,75.
2008ko igoera % 4,2ko aurrerapena. 2009ko lehenengo hiruhilabeteetan 2008ko soldata errebisatuko da.
Apirileko nominan atzerapenak kobratzea espero dugu.
2007ko atzerapenak: 1262€ gordina urte osoa jardun osoan lan eginda.
2008ko atzerapenak: 250,44€ lehenengo 3 hilabeteengatik jardun osoan lan eginda.

www.labsindikatua.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA:	13 Marengo karrika	tl. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatua.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 62, 48010	tl. 94 470 69 26	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatua.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	tl. 943 48 85 62	• fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatua.org
GASTEIZ:	Bueno Monreal 10, 01001	tl. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatua.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	tl. 948 38 24 74	• fax 948 22 12 76	irakaskuntzanafarroa@labsindikatua.org

08 martxoa – 8.alea

informazio

Formakuntza: 100 ordu urteko. 50 akreditatzekoak ziurtagiri ofizial baten bitartez.

LEP: Azaroaren hasieran azterketak izango dira.

Azterketak ez dira baztertzailerak izango.

2 froga: test erakoa lehengoa eta bigarrena test edo garatzekoa (Oraindik negoziatzeko dago).

Azterketaren emaitza ordezkoen zerrendarekin ez da lotuta egongo.

Lan esperientziagatik eta ikasketengatik puntuazioa negoziatu ahal izango dugu.

500 plaza inguru aterako dituzte.

Partzuergotik esan zaigu LEP prozesua traumatikoa ez izatea nahi dutela eta gaur egun lanean ari garenok bertan gelditzea nahi dutela. Gainera konpromiso hartu dute 2009an gutxienez beste 125 plaza gehiago aterako dituztela. Beraz, prozesua lasaitasunaz bizi ahal izango dugu .

LABetik egoera eta testuingurua aztertuta eta eman den egoera ikusita aurre-akordioaren sinadurarekin aurrerapauso bat izan dela esan dezakegu. Baina ez dugu ahaztu behar lan hitzarmena sinatzeko beste hainbat puntu falta direla jorrazteko. Lizentziak eta baimenak, langileentzako hobekuntza sozialak, lan osasun arloko hobekuntzak, kudeaketako pertsonalaren lan baldintzak hobetu (formakuntza, mailak errebisatu, barneko promozioak egiteko aukera eman...) beste batzuen artean.

Apirilaren 1ean haurreskolak partzuergoarekin aurreakordioa sinatuko dugu eta LEPa eta kurtso honetako baremazioa negoziatzeko bilduko gara.

LABek berretsi nahi du langileen eskubideen alde borrokatzen jarraituko duela eta gure helburuak lortu arte tinko jarraituko dugula.

Oporretan pilak kargatu oraindik denoi lan handia gelditzen zaigulako.

ANIMO TA SEGI AURRERA!!!!

www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA:	13 Marengo karrika	tl. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatu.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 62, 48010	tl. 94 470 69 26	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	tl. 943 45 85 62	• fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org
GASTEIZ:	Bueno Monreal 10, 01001	tl. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	tl. 948 38 24 74	• fax 948 22 12 76	irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org